

2016

Errenta

aitorpena

Euskaraz



AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:


- Jasotako proposamena onartzerakoan, euskaraz egin nahi duzula esan eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA:

- Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Ogasunarekin aurrez aurreko harremanak, nahiz telefono edo Internet bidezkoak euskaraz izan ditzakezu, horrela eskatzen baduzu.
- Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

INTERNET BIDEZKOA:

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu
- Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, espresuki adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, adibidez), euskaraz egiteko eska dezakezu.





2016ko UDALEKU IREKIETARAKO BEGIRALEAK AUKERATZEKO DEIALDIA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, Ekainaren 27tik uztailaren 22a bitartean burutuko den Udaleku Irekietarako begiraleen hautaketa deialdia egiten du.

Baldintzak ondorengoak dira:

- 18 urte beteak izatea edo 2016. urtean betetzea
- Euskara ondo menderatzea.
- Azterketa teoriko eta praktikoa egitea.
- Curriculumuma eta agiriak aurkeztea.

Hautaketa prozesuan baloratuko dira:

- Denbora Libreko begirale edo/ eta zuzendari titulua
- Heziketarekin zerikusia duten ikasketa, ikastaro, monografiko,
- Esperientzia antzeko lanetan.
- Langabetu edo ikaslea izatea
- Alkiza, Aduna eta Larraulen erroldatua egotea.

IZENA EMATEKO EPEA

Apirilaren 22a

AZTERKETA EGUNA eta LEKUA

Maiatzaren 6a. Pedro Maria Otaño Ikastetxean. Zizurkil) arratsaldeko 19:30etan

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Itsaso: Tf: 943 693930 (goizez)